



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko azaroaren 3a

71 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Futbol partiduak ematearen gainean Nafarroako Gobernua dituen irizpidei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (5. or.).
- Enpresa publikoek egiten dituzten kontratazioei buruzko arau-proiektu bat lantzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (6. or.).
- Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuak Nafarroarako aurreikusi dituen inbertsioei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (6. or.).
- Las Cañasko natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egitekoen kontratazioari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (7. or.).
- Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorren egitura organikoari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).
- Mendabiako hiri garraioari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).
- Sansol eta Elizagorrian markesinak paratzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- Garraioa arautzeari buruzko lege proiektu bat egiteari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
- Nafarroako Gobernuak lan instripuei aurre egiteko hartuko duen neurriei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- Volkswagenek Iruñean daukan lantegia Seat entresari saltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina
- Tuterako katedraleko klaustroa errestauratzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).

- Goardia Zibilak Foruzaingoaren egituran sartzeari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- “2000 Agenda”k Nafarroan izango duen eraginari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Substantzia ariskutsuak Nafarroan zehar garraiatzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Nekazaritza industri sektoreari buruzko galdera (jatorrizko izendapenak, sustapen kanpainak, etab.), Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Ekinbide pribatuak Renferen ondare higiezinaren ustiaketan partehartzeari eta horrek Nafarroan dituen ondorioei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Lekunberriko hiltegia ixteari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Gure Komunitateko hainbat herritan markesinak jartzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Bertizko Jaurerrian egin den egur-ateratzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Nafarroako flora mehatxatuaren Katalogoa sortzen duen Dekretuari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Nafarroako flora mehatxatuaren espezieetako biotopoen babesari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- Nafarroako basa fauna mehatxatuaren espezieetako babesaren garapenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- Mendillorriko banatze-espeditarearen egoerari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- Uxueko elizako obren egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Donapea institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- “Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatze eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- “Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa” deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Errioxako Autonomia Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin “Rioja” Jatorri Izendapenaren eta honen Kontseilu Arauemailearen gainean eduki beharreko lankidetzahitzarmenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Atzerrian diren Nafarroako Zentroei dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko urriaren 20an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamabost laneguneko epea irekiko da, **1997ko azaroaren 21eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuaren 1989ko abenduaren 28ko Erabakiaren bitartez Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleei, bizilekuaren kalte-ordain gisara, 1990ko urtarrilaren 1etik 1992ko abenduaren 31ra bitartean soldataren osagarri pertsonal eta berezi bat ematea baimendu zen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko gobernu organoek erabaki zuten gero aipatu onura mantentzea, “Irakasteaz arduratzeagatiko osagarria” izenarekin, eta Unibertsitateko irakasle funtzionario guztiei ematea.

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legearen esparruan, aurrekontuko 40300-4455-2-4224 kontusaila, “Bestelako transferentzia arruntak” izenekoa eta 168.024.000 pezetakoa, onetsi zuen. Kontusail hori, berez, beste zenbateko batzuekin agertuz joan da 1994tik hona Nafarroako Aurrekontu Orokorretan. Aipatutako 1/1997 Foru Legeak 22. artikuluan ondokoa xedatzen zuen:

“... kopurua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuko langile-gastuen kapituluan sartuko da, unibertsitateko irakasleen ordainketak gehitzeko, indarreko legeriaren arabera. Hala ere, aipatu kopurua erabiltzeko baldintza izango da Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruz erabakia hartzea, 1993ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin eta organo aginpidedunek proposatuta”.

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko Gizarte Kontseiluak, unibertsitateko gobernu organoek proposaturik, Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 33. artikulua 1. idatzian aipa-

tzen diren kidegoetakoak diren irakasle funtzionarioei ordainketa osagarri berezia emateko erabakia hartu ahalko du.

2. artikulua. Unibertsitatearen urteko aurrekontuan ondokoak zehaztuko dira:

a) langileen gastuen kapituluan, 1. artikuluan aipatzen den osagarria emateari dagokion zenbateko osoa.

b) zenbateko oso hori banatzeko irizpideak.

3. artikulua. 1. artikuluan aipatzen den osagarria emateari dagokion zenbateko osoa aurrekontu ekitaldi bakoitzean eguneratu egin ahalko da, unibertsitateko irakasle kidegoetako langileen oinarrizko soldatak igotzen diren neurri berean goaz. Bestalde, aipatutako kopurua aldatu egin ahalko da, aurrekontu ekitaldi bakoitzean osagarria jasotzeko baldintzak betetzen dituzten funtzionarioen kopuruaren arabera.

Xedapen Gehigarria

Bizilekuko osagarria, irakasteaz arduratzeagatikoa eta irakasleak parekatzeko osagarria deituri-

koak direla eta, 1993ko urtarrilaren 1etik 1997ko urtarrilaren 1era bitartean Nafarroako Unibertsitate Publikoko langileei emandako zenbatekoen aplikazioari buruzko erabakia Gizarte Kontseiluak hartuko du, baina ezingo da aurrekontu ekitaldi bakoitzean benetan emandako zenbatekoa gehitu.

Xedapen Iragankorrak

Lehenengoa. Foru Lege honen 1. artikuluan aipatzen den osagarriaren aplikaziorako baimendutako gehienezko zenbateko osoa 168.024.000 pezetakoa izango da 1997ko aurrekontu ekitaldian, eta aipatutako osagarria 1997ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin ordainduko da.

Bigarrena. 1998ko ekitaldirako gehienezko zenbatekoa 198.000.000 pezetakoa izango da.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina hartuko du indarra.

F Sailsa:
GALDERAK

Futbol partiduak ematearen gainean Nafarroako Gobernua dituen irizpidei buruzko galdera*MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak futbol partiduak ematearen gainean Nafarroako Gobernuak dituen irizpidei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaun Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

Badirudi zenbait zalantza planteatzen ari direla futbol partiduak telebistaz emateari buruz, hain zuzen ere partidu horiek ordaindutako kanaletatik edo dohaineko kanaletatik emateari buruz.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ezagutzen al ditu Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamen-

tuak Sustapen Ministerioak eta Televisión Española futbol partiduak orain arte eman diren maiztasun, ordutegi, kalitate eta interes berdinekin emateari buruz dituzten irizpideak?

2. Zein iritzi du Herrilan Departamentuak telebista digitala hasten denetik emanen diren futbol partiduei buruz, orain ematen direnekin konparatuta, kopuruaren, ordutegiaren, kalitatearen eta interesaren aldetik?

3. Ezagutzen al du Departamentuak noiz argitaratuko den interes orokorreko izendatuko diren eta beraz ordainketarik gabeko telebisten bidez emanen diren kirol emankizunen zerrenda?

4. Kontsumitzailearen defentsaren printzipioa aplikatuta, aurreikusi al du Departamentuak, bere kasa edo beste Departamenturen batzuekin batera, kanpainiaren bat egitea telebista digitalaren kontzeptua edo telebista horrek dituen alde onak eta txarrak zabaltzeko?

5. Ba al daki Departamentuak telebista digitalaren aparatu hartzaileetako instalatzaileen erregistroa ezarrita dagoen edo ezartzeko asmorik dagoen, edo ba al du hartzaile horien instalazioak burutzeko beharkizunen zerrenda bat egiteko asmorik?

Iruñean, 1997ko urriaren 14an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Enpresa publikoek egiten dituzten kontratazioei buruzko arau-proiektu bat lantzeari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak enpresa publikoek egiten dituzten kontratazioei buruzko arau-proiektu bat lantzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Agerian geratu da sozietate publiko batek Burson Masteller enpresarekin kontratua egin duela jendaurrean Itoizko urtegiari buruzko alderdi konkretuak zabaltzeko. Hori guztia ez zen jakitera eman bere garaian.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernua prest al dago arau-proiektu bat landu eta tramitatzeko gizarteak bere osotasunean eta argiro ezagut ditzan Nafarroako enpresa publikoek egiten dituzten kontratazioak, haien aurrekontuak eta horien betetzearen xehe-tasunak?

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik berak, bere Departamentuek edo Nafarroako enpresa publikoek egin dituzten edo egin ditzaketen kontratu guztiak argitara emateko edo, behintzat, iritzi publikoaren egoera jakin bat sortzeko helburua duten erabakiak landu eta transmititzen eragin zuzena izan dezaketen kontratu-edukiak argitaratzeko?

3.- Enpresa publikoek, Nafarroako Gobernuak edo haren departamentuek, zenbat eta zein konpromiso hartu dituzte beste pertsona batzuekin, haien iritziak zabaltzeko, irudi kanpainak egiteko, iritzi-egoerak sortzeko eta antzekoetarako?

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuak Nafarroarako aurreikusi dituen inbertsioei buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuak Nafarroarako aurreikusi dituen inbertsioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Komunikabideetan agertu denez, Estatuak 4505 milioiko inbertsioa aurreikusi du 1998ko Aurrekontuetan Nafarroarendako.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak zehatz-mehatz al daki Estatuako Aurrekontu Orokorrei buruzko lege proiektuak zenbat aurreikusi duen Nafarroan egiteko inbertsioetarako?

2.- Zer jarduketa zehaztuz inbertituko du Estatuak? Aipa bitez inbertsio bakoitza eta jotzen duen kopurua.

3.- Zein inbertsio egin ditu Estatuak Nafarroan aurtengo urtean, 1997an? Sar bitez ekitaldi hau amaitu arte aurreikusi direnak ere, eta aipa bitez inbertsio bakoitza eta jotzen duen kopurua.

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Las Cañasko natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egitekoen kontratazioari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Las Cañasko natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egitekoen kontratazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1997ko 123 zk.ko NAO-n ageri dira Las Cañasko natur erreserbara iristeko obren eta hainbat herritan markesinak egiteko obren kontratazioa presako izapidatzearekin.

Horiek horrela eta ikusirik presako kontratazioa prozedura arruntaren muga eta salbuespen dela

eta Departamentuak bere kontratazio-hatsapenak derogatu dituela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zeintzuk izan dira zure Departamentuak presaz esleitu dituen obra-kontratuak? Zeintzuk larrialdia zela-eta?

2.- Departamentuak eutsiko al dio presako irizpidea erabiltzeari?

3.- Zein izan da aipatu erabakiaren arrazoi zehatza? Zure bi zuzendaritza orokorretan gertatu baita eta obra oso ezberdinetan, gainera.

4.- Kontseilari jaunak ba al zekien obra horiek presaka kontratatu behar zirela?

5.- Zeintzuk izan dira presako kontratazioa egiteko abagunea ikusteko arrazoiak? Zein da horri buruzko txostenen edukia? Noiz eman ziren txostenok?

6.- Prozedura arrunta erabiliz gero, emaitza bestelakoa izanen zela uste al duzu?

7.- Zer lortu nahi da arau orokorretik aldentzen den prozedura batera jotzen denean?

8.- Lortu nahi ziren helburuak, ezin ziren ohiko kontratazioaren bidez erdietsi?

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorraren egitura organikoari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Orokorraren egitura organikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Komunikabideek argitaratu dutenaren arabera, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Oroko-

rraren egitura organiko berria onetsi dute, orain dela urte bete taxutu bazen ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zein da zure iritzia eta balorazioa aipatu Zuzendaritza Orokorrak, sortu zenetik gaur egunera arte, izan duen funtzionamenduari buruz?

2.- Kontseilariak eta Nafarroako Gobernuak zer erabaki politiko hartu dute euren agintaldian aipatu Zuzendaritza Orokorraren esku utzi diren Nafarroako eskumenak bete eta garatzeari buruz?

3.- Zer erabaki politiko hartzeko asmoa du Kontseilariak Nafarroak aipatu gaian dituen eskumenak erabiltzeari buruz?

4.- Zer eginkizun gehiago izango du egitura organiko berriak egun dagoenarekin konparatuz gero?

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Mendabiako hiri garraioari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Mendabiako hiri garraioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Komunikabideek zabaldu dutenaren arabera, ekainaren hasieratik aitzina, Mendabiako hiriarteko autobusak aldatu egin omen du aipatu herriaren erdialdean zuen ohiko geralekua. Atsekabea sortu du berri horrek Mendabiako herritarrengan, izan ere, hiriarteko garraioa erabiltzen dutenek herriaren kanpoaldera jo behar baitute euren etxetatik, geraleku berrira joan nahi badute. Egoera horrek, bistan da, zuzenago eragiten die mugaren bat duten lagunei, hots, atso-agure, ume, eri eta abarrei.

Beste alde batetik, Mendabiako hirigintzaren taxua lursailen azalera handian oinarritzen da, non etxeek, mendetan zehar eraikiak, sarritan, oin bakarra edo bi oin izaten dituzten, bertakoen bizitzeko ohituren erakusgarri. Beraz, herri urbaniza-

tutik at, are gehiago, zabalgunetzat jo dezakegurenaren kanpoaldean, zati handia ibili ondoren aurkituko dugu bus geltokia dagoen gasolindegia.

Mendaviako barne-komunikazioak, bestalde, eragin larria jaso du Elizagorriko saihebidia egin denetik, trazadura onekoa eta eroso denez gero, erabiltzaileek, hiriarteko autobusak barne, oso ongi hartu baitute.

Aipatu joan-etorriak benetan eskualdekoak dira Mendaviako biztanleendako, herri batetik bestera mugitzeko ohiko beharrianei erantzuteko erabiltzen baitute garraio hori. Beste alde batetik, beti uztartu behar dira herritarrei zerbitzu ona eskaintzea eta joan-etorriak errepide onetatik egitea. Errepideetan inbertsio publikoak egitea eta herritarren atsegina lortu behar dira.

Errepideak hobetzea eta joan-etorrietan denbora gutxiago ematea ez da bidaiariengatik garraio-zerbitzuak bakarrik eskatzen duen zerbait, errepideak erabiltzen duen orok galdatzen du, ordea. Argudio horri jarraituz, badirudi bideak ezarri behar direla Mendaviako hiriarteko autobusen zerbitzuak geralekua erdigunean izan dezan, eta horra iristeko eta hortik ibiltzeko behar bezalako bide-babesa izan beharko du.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Herrilan Departamentuak ba al daki mila mendaviatarrek izenpetu dutela Lizarrarekiko hiri garraioa konpontzeko eskabidea?

2.- Departamentuak berrikitan izapidatu al du administrazio-prozeduraren bat, bere kabuz edo zerbitzuaren emakidadunak eskatuta, "La Estelle-sa" enpresak ematen duen zerbitzuaren Mendaviako autobus-geltokiak aldatzeari buruz?

3.- Departamentuak ba al daki Mendaviako Udalak edo Mendaviako herritarrek edo erakundeek alegaziorik aurkeztu al zioten aipatu prozedurari?

4.- Jendaurreko informaziorik izan al zen aipatu zerbitzuaren aldaketa erabaki aurretik? Azaldu al zuten herrian aldaketaren nondik norakoa eta Mendaviari eragingo zion eragina?

5.- Herrilan Departamentuak ba al daki bus-geltokiaren aldaketa baimen espresurik gabe egin ote den? Egoki irizten al dio Departamentuak neurriren bat hartzeari?

6.- Egiaztatu al ditu Departamentuak, bere kabuz edo udalaren bitartez, geralekua herriaren erdigunean jarriz gero, harainoko bidearen segurtasun baldintzak? Hala bada, zer erabaki hartu du horri buruz eta zer hobekuntza aurreikusi du?

7.- Zergatik utzi du Departamentuak atsekabea horrenbestera hel dadin? Zer kudeaketa, izapide eta erabaki hartu ditu joan den uztailetik hona herritarrei poza emateko?

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Sansol eta Elizagorrian markesinak paratzeari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Sansol eta Elizagorrian markesinak paratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Komunikabideetan ikusi ahal izan dut Nafarroako Gobernuak onetsi egin duela Nafarroako hainbat herritan, Sansol eta Elizagorria, besteak beste, lau markesina paratzea hiriarteko garraioaren erabiltzaileendako.

Aipatu herrien inguruan dugu El Busto, markesinak jarriko zaizkien herrien antzeko xehetasunekin. Herri horretako garraio-erabiltzaileek ere itxaron behar diote autobusari estalperik gabe, eta badirudi markesina jartzea eskatu zutela aspaldian.

Beste alde batetik, kontuan hartzen badugu Done Jakue Bidea Iruñea-Logroño errepidetik doala, beraz erromesak iragaten direla, El Busto-

tarren eta erromesen babesaren amoreagatik, bidezko litzateke markesina bat jartzea Iruñea-Logroño errepideak El Bustoko herria gurutzatzen duen tokian.

Gogoan hartzen badugu autobusa Sansoleko herritik bertatik iragaten dela eta El Busto, busgeltokitik zentroraino kilometro eta erdi inguru dagoela, eta bereizkeriarik ez egiteko, egoki litzateke El Busto aipatu markesina jartzea. Bereizkeria hori areagotu egin da, Elizagorrian ere markesina jarri dutelako geraleku berria dagoen saihezbidea eraiki eta berehala.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer irizpideri jarraitu diote Sansolgo eta Elizagorriako markesinak onesteko?

2.- Zer arrazoi izan da El Bustoko bidea eta Iruñea-Logroño errepide nazionala gurutzatzen diren gunean markesina jartzeko baimenik ez emateko?

3.- Herrilan Departamentuak beharrezkoagoztat jotzen al ditu aipatu herrietan onetsi dituen instalazioak El Bustoko bidegurutzean beste bat jartzea baino?

4.- El Bustoko bidegurutzean markesina jartzeari bidezko irizten badio, noiz emango du jartzeko baimena?

5.- Noiz aurkeztu dituzte aipatu hiru herriek instalazio-eskariak, halakorik aurkeztu baldin badute?

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Garraioa arautzeari buruzko lege proiektu bat egiteari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak garraioa arautzeari buruzko lege proiektu bat egiteari buruz egindako galderaren biderapena oneste erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Demokraten Elkarguneak ezinbestekotzat jotzen du zuzentasun-politikak ezartzea, bizimodua hobetzeko, berdintasunaren helburua erdiesteko eta eskualdeen arteko elkarbizitza taxutzeko. Horregatik ematen dio Elkarguneak lehentasuna Iruñerrian eskualdeko garraioa ahalik eta lasterren jartzeko izapideak betetzeari.

Kontseilariren batek planteatu du gai hori, baina gure ustez, iruzkindu beharreko konpromisotzat hartu du, hori errealitate bihurtzeko asmo orokorra ikusita, eta ez da izan benetako errealitate bihur dadin izapideak gainditu behar direla bete-betean sinistearen ondorio.

Beste alde batetik, ez dugu ulertzen Nafarroako biztanleen erdia eta toki entitate asko ukitzen dituen gaia izanda, nola Herrilan Kontseilariak baino ez duen egoera komentatu, iragarrezkiro bezala; guk, behintzat, ez dugu Toki Administrazio Kontseilariaren iritzia berri, Barne Departamentuko kontseilari ere badela gogoratu, haren eskumenei zuzen eragiten baitiete trafikoak, zirkulazio-fluxuak, toki-entitateen funtzionamenduak, eta abarrek. Hori guztia ikusita, eskualde honetako hiriarteko garraioa dela-eta, hainbatetan aipatua, hurrengoak jakin nahi dira:

1.- Zer egoeratan dago aipatu garraioa arautzeari buruzko lege aurreproiektua? Izan ere, Departamentuko zerbitzuek egin baitzeukaten kargu hartzea gertatu zenerako.

2.- Zer iritzi eman dute zerbitzu juridikoek aipatu aurreproiektuaren lege-egokitasunari buruz?

3.- Zer izapide agindu eta burutu dituzu aipatu arau-aurreproiektuari buruz karguaz jabetu zinetik gaur egunera arte?

4.- Ba al da une honetan Gobernuak onetsi eta Parlamentuan aurkezteko moduko lege proiekturik?

5.- Zer epe jotzen duzu Departamentuak Eskualde Garraioari buruzko Lege proiektua prest izateko eta Gobernuari aurkezteko?

6.- Zer izapide burutuko ditu Departamentuak aipatu lege proiektua Gobernuari aurkeztu arte?

7. Egoki deritza aipatu Lege proiektuan Gobernuak bereganatu beharreko kopuru finkoa izateari, urtero egunera daitekeen arren? edota, Elkarguneak uste duen bezala, Gobernuaren konpromisoak gerta daitekeen defizitaren zati proportzionala hartu beharko luke?

8.- Udalengana jo eta akordioa eskatzearen partez, konpromiso-maila zehazgabe batekin, ez al du uste egokiago dela lege proiektua egin eta toki entitateei eta sektoreei helaraztea, edukia ikusi ondoren erabaki egokia eman dezaten?

9.- Egoki irizten al dio interesatu guztiei lan-egutegi zehatza zuzenean ezagutarazteari, egunak, hartu beharreko erabakiak eta lege proiektua Gobernuan izapidatzeko eguna finkatuz, toki entitateek ezagutu eta onartu ahal izan dezaten edo aldaketak sartu?

10.- Zer finantzaketa eredu finkatuko da lege proiektuan?

11.- Zer erabaki edo konpromiso hartu ditu zure Departamentuak eskualdeko garraioa jartzeko ukitzen dituen beste departamentu batzuekin?

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Nafarroako Gobernuak lan instripuei aurre egiteko hartuko duen neurriei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak lan instripuei aurre egiteko hartuko duen neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den ostiralean, urriak 18, UGT eta CC.OO sindikatuek jakitera eman zituzten aurtengo lan instripuei buruzko datuak.

Gutzizko zenbatekoek jadanik aurreko urteetako erabateko datuak gainditzen dituzte. Hori dela eta, bi sindikatu horiek, gure Komunitatean instripuen bilakaera negatiboan eragiten duten arazo- en azterketa bat egiteaz gain, neurri batzuk ere proposatu zituzten. Neurri horietako batzuek Foru Administrazioa bera ere ukitzen dute zuzenean.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zein neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak Lan Ikuskaritzako giza baliabideak indartzeko, jarduera sektorialeko eta lurralde jarduerako planen bidez zaintza eta kontrol lan egoiak egin daitezen?

2. Lan eta osasun gaietan eskumenak dituzten administrazio publikoen arteko zein koordinazio neurri sustatu behar ditu Nafarroako Gobernuak, lan instripuen kontra borrokatzeko laguntza berezi gisa?

3. Zein plan burutzen ari da Nafarroan Lan Osasunaren Kabinetea instripuei aurre egiteko, arriskuen mapa burutzeko eta abar?

4. Prest al dago Nafarroako Gobernua, azken bost urteetan segurtasun eta osasun arauak hausteagatik zehatutako enpresen erregistro bat ezartzeko? Prest al dago enpresa horiek Nafarroako Administrazio Publikoekin kontraturik egin ez dezaten, lan arriskuei aurrea hartzeari buruzko Legearen 54. artikulua ezarri bezala?

5. Zein epetan uste du Nafarroako Gobernuak azaldutako neurri horiek aplikatuko direla Nafarroan?

Iruñean, 1997ko urriaren 21ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Volkswagenek Iruñean daukan lantegia Seat entpresari saltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Volkswagenek Iruñean daukan lantegia Seat entpresari saltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako "Nueva Izquierda"ren Foru Parlamentariak, Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Berrikitan zabaldu den berriaren arabera, bali-teke Volkswagen Taldeak, bere estrategiaren barruan, Landabengo lantegia Seat entpresari "saltzeko" aukera aztertu izana.

Titulartasunaren edozein aldaketak Nafarroan izan dezakeen eragina kontutan hartu behar da, inportazio/exportazio erlazioaren eta fiskalitatearen arabera.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1. Volkswagenek Iruñean duen lantegia Martorellgo Seat entpresari eskualdatzeko asmoaren berririk al duen Nafarroako Gobernuak.

2. Zer eragin ekonomiko izan dezake aipatu gertaerak Foru Ogasunarentzat? Zer baldintzatan izango litzateke neutroa?

Iruñean, 1997ko urriaren 21a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Tuterako katedraleko klaustroa errestauratzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako katedraleko klaustroa errestauratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako "Nueva Izquierda"ren Foru Parlamentariak, Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Urte bete baino gehiago da Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren bitar-

tez, hitz eman zuela Tuterako Katedralaren errestaurazio plana lantzeko, eta egia da, horren fase batzuk, garrantzi gutxieneakoak, burutu egin zirela.

Gaur egun, klaustroaren endekatze egoerak ezinbesteko egiten du ekintza-plana abiaraztea, hiruko Gobernuak horretarako hitz eman baitzuen bere garaian, baita Miguel Sanz Lehendakariak berak ere, geroago.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1. Zer jarduera-plan eta egutegi aurreikusi dira Tuterako Katedraleko klaustroa errestauratzeko, Tuterako Katedralak behar duen osoko errestauratzearen barruko jarduketa berezi eta presako bezala?

2. Tuterako Katedrala errestauratzeko fase guztien kostuen ebaluazio orokorrik ba al da? Zenbat jotzen du?

3. Tuterako Katedrala dela-eta, Ondare Historikoarekin harremanak izan direla zabaldu da, baina, zeintzuk izan dira emaitzak? Estatuko era-

kunde horrek konpromisorik hartu al du errestituzio-proiektuaren zatiren bat ordaindu edo diruz laguntzeko? Hala bada, zeintzuk?

4. Zer kopuru jarri da Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan Tuterako Katedralaren errestituzio-

razio-lanetarako, zer epigrafetan eta zer aurrekontu-lerro zenbakiarekin?

Iruñean, 1997ko urriaren 21a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Goardia Zibilak Foruzaingoaren egituraren sartzeari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Goardia Zibilak Foruzaingoaren egituraren sartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, "Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikirik Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

Lehendakariorde eta Barne Kontseilariak datozen urteetan Goardia Zibilak Foruzaingoaren egitura sar daitezela laguntzeko bere borondatea iragarri zuen. Ildo honetatik, badirudi Gobernuak Barne Kontseilariak Estatuko Segurtasun Gorputz horretako kideak Foruzaingoan "formula eskuzabal" baten bidez sar daitezela hainbat erraztasun ezartzeko asmoa duela. Hori horrela, zera jakin nahi da:

1.- Zenbat goardia zibil sartuko dira Foruzaingoan?

2.- Noiz eta nola gauzatuko da sarrera hori?

3.- Zer nolako sarrera-baldintzekin sartuko dira foru-funtzio publikoan?

4.- Zer nolako erraztasun emango zaie Goardia Zibileko kideei Foruzaingoan sar daitezela?

5.- Zein da Barne Kontseilariak aipaturiko formula eskuzabala?

Iruñea, 1997ko urriaren 21a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren.

“2000 Agenda”k Nafarroan izango duen eraginari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak “2000 Agenda”k Nafarroan izango duen eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeari atxikiri-ko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

1997ko uztailaren 16an, Europako Batzordeak “2000 Agenda” izeneko agiri bat aurkeztu zuen, bertan Europako Batasunak datorren mendearen hasierarako dituen aurreikuspenak deskribatuz. Europako Batzordeak zera proposatzen du: Egitura Fondoaren lehentasunezko helburuen kopurua zazpitik hirura murriztea; alegia, bi eskualde-helburutara eta giza-baliabideak arretagai dituen helburu horizontal batera.

Egitura Fondoaren funtzionamenduari dagokionez, Batzordeak Eskualde bakoitzeko urteanitzeko programa bakar bat finantzatzea proposatzen du, Batasunaren ekimen-kopurua honako hauetara mugatuz: mugez gaineko, trantsakziozko eta eskualdearteko lankidetzak, landa-ingurunearen garapena eta giza-baliabideak. Orobat, egitura-baliabideen eraginkortasuna hobetzeko ahaleginak egingo dira, laguntza itzuliezinak ez diren finantza-tresnak gehiago erabiliz.

1. helburuari dagokionez, BPG/biztanle irizpide estatistikoa zorrozki aplikatzea proposatzen du Batzordeak, biztanle bakoitzeko BPGa Batasuneko batezbestekoaren %75aren azpikoa duten erregioak bakarrik izan daitezen horren onuradun.

2. helburua industria-, zerbitzu- eta arrantza-sektoreetako eraldaketak direla-eta berregiturake-

ta ekonomiko eta sozial garrantzitsu bat behar duten eskualdeetarako, gainbehera larrian dauden landa-eskualdeetarako eta zailtasunak dituzten hiri-auzoetarako litzateke.

3. zenbakia duen helburu berri bat aplikatuko zaie 1. eta 2. helburuetan sarturik ez dauden eskualdeei, kide diren Estatuei euren hezkuntza-eta trebakuntza-sistemak, hala nola enplegua eskuratzekoak, moldatzen eta modernizatzen laguntzeko.

Batzordearen proposamen hauek guztiak Estatuaren artean eta Europako gainontzeko erakundeetan eztabaidatuko dira. Europako Batasunaren 2000. eta 2006. urteen arteko finantza-aurreikuspenei buruzko behin betiko erabakiak abenduan egingo den Luxemburg-eko Europar Kontseiluan har litezke jadanik. Bestalde, 1999 ondorengo Fondoak arautuko dituzten erregelamendu berriak 1998tik aurrera negoziatuko dira.

Egitura eta Kohesio Fondoaren eraldaketa honen aurrean, zera jakin nahi da:

1.- Horrek Nafarroan izango duen eraginari buruz Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenak eta Foru Komunitateak horietatik onura ateratzeko izan litzakeen benetako aukerak.

2.- Aurreikuspen horiek justifikatzen dituzten azterketak. Horiek erantzunaren eranskin bezala gehitzea eskatzen da.

3.- Foru Komunitateak Fondo horietatik onura ateratzen duten eskualdeetan iraungo duela bermatzen saiatzeko eman diren urratsen deskripzio xehatua.

4.- Alde horietatik kanpo geratzeak Foru Komunitatean izango lukeen eraginari buruzko aurreikuspen eta azterketak.

5.- Helburu eta fondoetan sartu ahal izateko dauden parametroei buruz Nafarroako Gobernuak dituen azterketa eta datuak, konparaketak eginez eta Eurostar-ekoak ere hartuz, hala nola horiek fondo-sistema berria indarrean sartu arte izango duten bilakaeraren aurreikuspena.

Iruñea, 1997ko urriaren 22a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Substantzia ariskutsuak Nafarroan zehar garraiatzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak substantzia ariskutsuak Nafarroan zehar garraiatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroa, daukan kokapen geografikoarengatik, substantzia ariskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuen pasabide garrantzitsua da. Pasabidea den aldetik, gure Komunitatean ibilgailuen jario handienak N-1 (Irun-Madril) errepidean, Irundik Nafarroarako sarbideetan eta Iruñeko ingurubideetan gertatzen dira.

Substantzia ariskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulazio horren arrazoia ez da soilik Nafarroa pasabidea izatea, baizik eta baita ere

industrialde ugarietan instalatuta dauden enpresek substantzia horiek gero eta gehiago kontsumitzen dituztela.

Dena den, Nafarroan ez dago errepideen kontrol berezirik substantzia arriskutsuen garraioari begira.

Substantzia ariskutsuak Nafarroan zehar garraiatzea dela-eta, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Substantzia ariskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek parte izan duten zenbat istripu gertatu dira gure Komunitatean? Zein substantzia garraiatzen ziren istripua izandako ibilgailuetako bakoitzean? Beharrezkoa izan al zen jarduketa bereziren bat egitea?

2. Ba al du Nafarroako Gobernuak garraio mota horri buruzko daturik? Baiezkoan: Substantzia ariskutsuak garraiatzen dituzten zenbat kamioi igarotzen dira Nafarroatik? Zein dira garraiatu ohi dituzten substantzia motak? Zein dira erabiltzen dituzten ibilbideak?

3. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du egintza planen bat egitea substantzia ariskutsuak garraiatzen dituen kamioiren bat inplikatura dagoen istripurik gertatzekotan egin beharko liratekeen jarduketa egokienak biltzeko?

Iruñean 1997ko urriaren 23an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nekazaritza industri sektoreari buruzko galdera (jatorrizko izendapenak, sustapen kanpainak, etab.)

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak nekazaritza industri sektoreari (jatorrizko izendapenak, sustapen kanpainak, etab.) buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako nekazaritza industriak, desegokitasun handiak dituen arren, ekarpen handia egiten dio industriaren sektoreko Barne Produktu Gordinari (BPG).

Jende askok daki ekarpen horretako atal handi bat jatorrizko izendapenetan oinarritzen dela, izan ere, nekazaritza industriaren azpisektorearen euskarri garrantzitsua izan baita.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Jatorrizko izendapenak azaltzea, ondoko datuak emanez:

A) 94, 95 eta 96. urteetako guztizko produktzioa.

B) 94, 95 eta 96. urteetako salmentak.

C) 94, 95 eta 96. urteetako etekin gordinak.

D) Nafarroako enpresa nagusiak, beren salmenten kopuruaren arabera (izendapenari lotuak).

E) 94, 95, 96. urteetan egindako inbertsioak eta Nafarroako Administrazioak emandako dirulaguntzak.

f) 1997/98 biurtekorako aurreikusi diren inbertsioak eta dirulaguntzak; lortu beharreko helburuak eta barne hartutako enpresak.

2. Sustapen kanpainak.

a) Nafarroako aurrekontuen kargura 94, 95 eta 96. urteetan egin ziren eta produktua eta Nafarroa lotzen zituzten berariazko publizitateko edo/eta publizitate orokorreko kanpainak. Xede horretarako egin eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ezagutzen dituen bestelako kanpainak.

B) 1997/98 biurtekoan eginen diren kanpainen aurreikuspena eta horretarako dagoen edo jarriko den aurrekontua.

Iruñean, 1997ko urriaren 21ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Ekinbide pribatuak Renferen ondare higiezinaren ustiaketan partehartzeari eta horrek Nafarroan dituen ondorioei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ekinbide pribatuak Renferen ondare higiezinaren ustiaketan partehartzeari eta horrek Nafarroan dituen ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xeda-

tuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Joan den astean iragarri zuen Renfek, bere Ondare eta Hirigintza Unitatearen bitartez, bere jabetzapeko lurra ustiatzeko plana abiarazteko asmoa zuela, Estatuko eraikuntza-enpresa nagusien lankidetzarekin.

Horretarako, hainbat lerro eta korridore hautatu, joan-etorri luzekoak zein alderrietakoak, lursailen bat aukeratu eta, urbanizatu eta eraikitze moduan dagoenean, sozietate mistoa eratzten du Renfek, aurrez aukeratutako eraikuntza-enpresa batekin, gehien bat kapital publikoa duten enpresa edo partzuergo handiei zuzenean saldu ordez.

Trenbide-konpainiak sozietate mistoaren kapitalaren ehuneko 40 hartzen du, sorkuntzatik bereetik, eta sozietate misto horri ematen dio lurzorua, proiektua abiarazi eta kudeatzeaz ardura dadin. Proiektua bukatu ondoren (etxebizitzak, lokalak, aparkalekuak...) bazkide bien artean banatuko

dute biek sortutako sozietate mistoaren aktiboa, bertan duten kapitalaren arabera.

Ekinbide pribatuak Renferen ondare higiezinaren ustiatetan partehartzea eta horrek Nafarroan dituen ondorioak direla-eta, hurrengo galderei erantzuna ematea eskatzen dut:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Renfek gure Komunitatean dituen ondarearen eta lurzorultzoen berri? Baiezkoan, zenbat orube ditu eta zenbat azalera hartzen du horietako bakoitzak?

2.- Nafarroako Gobernuak ba al daki trenbide-konpainiaren ondare higiezina ustiatzeko aurreikusitako jarduketaren batek gure Komunitatea uki-

tzen duen? Baiezkoan, zer lursail hartuko luke? Zer azalera du horietako bakoitzak? Zer eraiki nahi dute? Zer enpresa aukeratu dute aipatu lurzorua kudeatzeko sozietate mistoa eratzeko?

3.- Nafarroako Gobernuak harremanik izan al du, edo izateko asmoa du, Renfeko edo Ministerioko zuzeneko edo zeharkako arduradunekin, aipatu konpainiak Nafarroan dituen lurren balio handitzean partehartzeaz hitz egiteko?

Iruñean, 1997ko urriaren 24a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Lekunberriko hiltegia ixteari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lekunberriko hiltegia ixteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Lekunberriko hiltegia 1985ean zabaldu zuten eta laister itxiko omen dute, herri horretako Udalak erabaki baitu hiltegia kokatuta dagoen lurra enkantean saltzea.

Hiltegi honek zerbitzua ematen die Araitz, Betelu, Areso, Leitza herrietako eta Ultzama, Basaburua eta Larraungo ibarretako harakin eta abeltzainei.

Inguruko alkate eta industriagileek bete-beteaz azaldu dira Lekunberriko Udalaren erabakiaren

aurka, aipatu hiltegia delako inguruko bakarra, eta hori itxiz gero beste gastu bat eratorriko litzaiekek-lako ekoizleei, abereak Iruñeko edo Tolosako hiltegiatar eraman behar izateagatik.

Lekunberriko hiltegia ixtea dela-eta, hurrengo galderei erantzutea eskatzen dut:

1. Nafarroako Gobernuak ba al du Lekunberriko hiltegiaren egoeraren eta kontserbazio itxuraren berri? Irekita jarraitzeko osasun eta lege baldintzak betetzen al ditu?

2. Nafarroako Gobernuak ba al du hiltegi horretan azken hiru urteotan hil diren buruen kopuruari buruzko daturik? Zenbat jotzen du hildako buruen kopurua, abere-mota bakoitzarendako?

3. Gobernuak jaso al du Lekunberriko Udalaren jakinarazpenen bat, edo bileraren bat egin al du harekin, lursailen enkantearen ondorioz sortuko den egoera berria aztertzeke? Nork jo du Nafarroako Gobernuarengana aipatu egoera aztertzeke?

4. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du edo dagoeneko ekin dio jarduketaren bati, aipatu inguruko erabiltzaileek beharrezkotzat jotzen duten zerbitzua kentzea saihesteko, haragi-abeltzaintzak garrantzi handia baitu inguru horretan?

Iruñean, 1997ko urriaren 24a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Gure Komunitateko hainbat herritan markesinak jartzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak gure Komunitateko hainbat herritan markesinak jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak oraintsu eman du jakitera bost markesina eraikitzeke proiektuaren onespina, La Población-Meano, Sansol, Elizagorria, Villatuerta eta Nabaskozeko herrietan, 12.000.000 pezetako aurrekontuarekin.

Bost herriotan aurreikusi dute Nafarroako beste toki batzuetan jarri dituzten markesinen antzekoak jartzea.

Beste alde batetik, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, eskaria jaso zuenetik urte bete igaro ondoren, Araitz eta Betelu ibarretako udalen iradokizunak onetsi ditu, Arribe, Atallu

eta Betelu herrietan sei markesina izan ditzaten, herri horietatik iragaten diren hiru autobus-zerbitzuen erabiltzaileek aterpe izan dezaten.

Neurri hori ahal bezain laster hartzea proposatzen ari ziren udal horiek, eta baita jarri beharreko markesina-motak inguru horretako herri-paisaiarekin bat etorri behar zuela ere, udal horietako itxura zaintzeko asmoz. Beraz, Herrilan Departamentuak onetsi egin ditu berrikitan proiektua eta obrak kontratazeko espedientea 5.900.000 pezetatan.

Gure Komunitateko hainbat herritan markesinak jarriko direla-eta, hurrengo galderei erantzuna ematea nahi da:

1. Zer irizpideri jarraitzen dio Nafarroako Gobernuak markesinak paratzeko proiektuak onesteko? Aurretik erabakitako plan baten ondorio dira ala udalek eskatu ahala burutzen al ditu?

2. Nafarroako Gobernuak zenbat eskabide jaso ditu markesinak jartzeko 1996tik? Zer egunetan aurkeztu zen horietako bakoitza? Zer egoeratan dago horietariko bakoitza (egina, onetsia, proiektatua edo aztertzen)? Zenbat markesina jarriko da aipatu herrietako bakoitzean eta zein da horiek paratzeko aurrekontua?

3. Zer sistemari jarraitzen zaio horiek kontratatu eta esleitzeko? Zer sistema erabili dute 1996tik honako jarduketetan, aurreko galderan esandako herri bakoitzarendako? Nola justifikatzen da kasu bakoitzean sistema ezberdinak aukeratzea, indarreko legediak aurreikusten dituen artean?

Iruñean, 1997ko urriaren 27a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Bertizko Jaurerrian egin den egur-ateratzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bertizko Jaurerrian egin den egur-ateratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak parke natural deklaratu zuen "Bertizko Jaurerria", baso mistoaren (pagoa eta haritza) erakusgarri denez zaindu eta babes-teko eta paisaia natural eder horren iraupena bermatzeko.

Urteak joan urteak etorri, Nafarroako administrazio publikoek hainbat jarduketa burutu dute horko fauna eta flora espezieak ugaltzeko, babes-tutzat jo baitituzte.

Aurtengo lehen hiruhilekoan ohiz kanpoko oihan-aprobetxamendua egin zuten, inguruko harridurarako, kontuan izanik inguru horren nolakotasunak eta aprobetxamendua burutzeko modua. Gero jakin ahal izan dugu garai hartan aipatu inguruan izan ziren haizeteek botatako zuhaitzak ateratzen aritu zirela.

Egoera horren ondorioz parlamentu-galdera bat egin zen Bertizko Jaurerriko egurra ateratzeari buruz, zeinaren erantzuna urriaren 8an argitaratu baitzen. Erantzun horretan, zuhaitzen egoerari eta erabilitako oihan-zaintza-teknikei buruzkoak aipatu ondoren, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu

eta Etxebizitza Kontseilariak zuzenetsi egin zuen haizeteak botatutako zuhaitzen bi herenak ateratzeko baimena.

Bertizko Jaurerrian egin den egur-ateratzea dela-eta, hurrengo galderari erantzutea nahi da:

1. Aipatu oihan-aprobetxamenduak edo egurra ateratzeak eragin al dio Erabilera eta Kudeaketarako Planak aurreikusten duen Bertizko parke naturaleko babes ekologiko bereziko aldeari? Zer azalera hartu du? Zer ondorio izan dira? Nortzuk -teknikariak, Administrazioaren ordezkariak edo beste batzuek- zuzendu eta kontrolatu zuten aipatu oihan-aprobetxamendua edo egur ateratzea? Nork ordaindu zituen aipatu aprobetxamenduaren kostu-gastuak?

2. Zertarako erabili dituzte Bertizko Jaurerriko ateratako zuhaitz eroriak? Nori eman zizkioten? Zer esleipen-sistema erabili dute? Zer dirusarrera hartu zen zuhaitzen ordainetan? Nork hartu zituen?

3. Zer teknika eta makina erabili zen egurra ateratzeko? Zenbat bide, pista edo egurra atera eta garraiatzeko bide ebaki, zabaldu edo sortu zen aipatzen ari garen zuhaitzak ateratzeko? Parke naturaleko zein aldetan?

4. Ingurugiro eraginaren azterketarik egin al zen, 229/93 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera, administrazio-baimenaren edo aprobetxamenduaren edo egurra ateratzearen aurretik? Nork egin zuen? Zer xedatu du aipatu azterketak babes ekologiko bereziko aldean aritzeari buruz?

5. Naturgunea bereoneratu beharrik izan al zen aipatu jarduketan ostean? Zer neurri zehatz hartu du edo hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak naturgunea bereoneratu eta aipatu oihan-aprobetxamenduaren ondorioz jasan ahal izan dituen kalteak konpontzeko? Nola kenduko dira zuhaitzak atera eta garraiatzeko bideak?

Iruñean, 1997ko urriaren 27a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako flora mehatxatuaren Katalogoa sortzen duen Dekretuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako flora mehatxatuaren Katalogoa sortzen duen Dekretuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

92/43/EEE zuzentarauaren helburua da estatukideetako europako lurraldeko habitat naturalak eta basa fauna eta basa flora kontserbatzea. Bai zuzentarau horrek, bai estatu mailako legeek oinarritzko marko bat ezartzen dute haiei babes egokia eman dakien eta natur baliabideak modu antolatuan erabil daitezen.

Basa flora kontserbatzeari buruzko funtsezko printzipioek administrazio publikoak behartzen dituzte egoera basan bizi diren florako espezieak kontserbatzera, arreta berezia jarriz espezie autoktono gisa hartutakoetan. Horregatik lehentasuna ematen zaio floraren habitatak babes araubide berariazkoak ezarriz gordetzeari. Era berean,

natur ondarearen –bertan bilduz ere flora beraniztasun genetikoa gordetzearen eta mehatxatutako espezieak kategoriatan mehatxatuaren mailaren arabera kategoriatan ezberdinetan katalogatzearen aldeko jarduketara publikoak eskatzen da.

Nafarroak aniztasun aberasgarria du basa florari dagokionez, eta merezi du hori babestu eta kontserbatzea, gure lurraldeko bereizgarri gisa. Berriki, Foru Dekretu bat onetsi da flora mehatxatuaren Katalogoa sortu eta katalogatzen den basa flora kontserbatzeko neurriak ematen dituen.

Nafarroako Flora Mehatxatuaren Katalogoa sortzen duen Dekretua dela eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Uste al du Nafarroako Gobernuak Natur Lekuneak legezko biderik egokiena direla interes handieneko basa floraren espezieetako habitatak babesteko?

2. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du edo aztertzen ari al da Naturgune mota berriren bat sortzea gure Komunitatean mehatxatutako floraren zenbait populazio kontserbatu eta aztertzeko? Baiezkoan: noizko hasiko dira naturgune horiek lanean?

3. Zein ikerlan hartu dira oinarri Nafarroako Flora Mehatxatuaren Katalogoa egiteko? Zein teknikarik, enpresak, entitatek edo erakundek egin dituzte ikerlan horiek? Noiz entregatu dira eta zein izan da horietako bakoitzaren kostua?

Iruñean 1997ko azaroaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako flora mehatxuaren espezieetako biotopoen babesari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako flora mehatxuaren espezieetako biotopoen babesari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

92/43/EEE zuzentarauaren helburua da estatukideetako europako lurraldeko habitat naturalak eta basa fauna eta basa flora kontserbatzea. Bai zuzentaru horrek, bai estatu mailako legeek oinarritzko marko bat ezartzen dute haiei babes egokia eman dakien eta natur baliabideak modu antolatuan erabil daitezten.

Basa flora kontserbatzeari buruzko funtsezko printzipioek administrazio publikoak behartzen dituzte egoera basan bizi diren florako espezieak kontserbatzera, arreta berezia jarritz espezie autoktono gisa hartutakoetan. Horregatik lehentasuna ematen zaio floraren habitatak babes araubide berariazkoak ezarriz gordetzeari. Era berean, natur ondarearen bertan bilduz ere flora beraniztasun genetikoak gordetzearen eta mehatxatu-

tako espezieak kategoria mehatxuaren mailaren araberrako kategoria ezberdinetan katalogatzearen aldeko jarduketa publikoa eskatzen da.

Nafarroak aniztasun aberasgarria du basa florari dagokionez, eta merezi du hori babestu eta kontserbatzea, gure lurraldeko bereizgarri gisa. Berriki, Foru Dekretu bat onetsi da flora mehatxuaren Katalogoa sortu eta katalogatzen den basa flora kontserbatzeko neurriak ematen dituen.

Nafarroako flora mehatxuaren espezieetako biotopoen babesa dela eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Zein neurri zehatz hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroan mehatxatutako basa floraren espezieetako biotopoak babesteko? Ba ote du Nafarroako Gobernuak Nafarroan diren florako espezieetako habitat aipagarrienetako batzuk babesteko asmorik?

2. Zein toki proposatu behar ditu Nafarroako Gobernuak 92/43 Zuzentarauaren Natura 2.000 sarean sartzeko? Zein udalerrri ukitzen ditu? Noizko aurreikusi da azken eta behin betiko proposamen bat edukitzea Europako Batzorderako?

3. Zein dira mehatxatutako basa flora ukitzen dituen arrisku arruntenak? Zein neurri zehatz hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak horietako bakoitza deusezteko eta basa floraren biotopoak babesteko? Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du bere betebeharra gauzatzea eta nola kontrolatuko ditu arrisku horiek sortzen dituzten jarduerak?

Iruñean, 1997ko urriaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako basa fauna mehatxatuaren espezieetako babesaren garapenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako basa fauna mehatxatuaren espezieetako babesaren garapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

92/43/EEE zuzentarauaren helburua da estatukideetako Europako lurraldeko habitat naturalak eta basa fauna eta basa flora kontserbatzea. Bai zuzentarau horrek, bai estatu mailako legeek oinarritzko marko bat ezartzen dute haiei babes egokia eman dakien eta natur baliabideak modu antolatuan erabil daitezten.

Basa flora kontserbatzeari buruzko funtsezko printzipioek administrazio publikoak behartzen dituzte egoera basan bizi diren florako espezieak kontserbatzera, arreta berezia jarriz espezie autoktono gisa hartutakoetan.

Nafarroak aniztasun aberasgarria du basa florari dagokionez, eta merezi du hori babestu eta kontserbatzea, gure lurraldeko bereizgarri gisa. Berriki, Foru Dekretu bat onetsi da flora mehatxatuaren Katalogoa sortu eta katalogatzen den basa flora kontserbatzeko neurriak ematen dituena.

Zientifikoen artean aipatu dute Nafarroarendako lorategi botanikoa sortzeko interesa eta aukera, hezkuntza edo heziketa zereginetarako, espezie askoren lanketa esperemintalarekin, germoplasma-bankuak sortzearekin eta ugalketa begetatiboko saioekin uztartzeko moduan

Nafarroan mehatxatutako basa faunako espezieetako babesaren garapena dela eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Nafarroako Gobernuak pentsatu al du Nafarroako flora mehatxatuaren Katalogoa burutzeko prozesua bitartean lorategi botaniko bat sortzea? Nork eta proposatu zuen hori, non? Zertarako? Zein erabileratarako?

2. Ba al du Nafarroako Gobernuak beste komunitate autonomoek lorategi botanikoak eta germoplasma bankuak garatzearen eta landareak ugaltzeko entseien inguruan egin dutenaren berri?

3. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak beste komunitate autonomoak mehatxatutako floraren espezieetako biotopoak babesteko Naturgunez baliatu ote diren? Zeinetan? Legezko zein figura edo zein naturgune mota?

4. Nafarroako Gobernuak zein administrazio unitatek du eskumena mehatxatutako floraren katalogoa egiteko? Ba al dute langile eta diru baliabide nahikorik lan horri ekiteko? Zein behar dituzte?

5. Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusi du Katalogoaren kategoria ezberdinetan zein espezie sartuko diren berrikustea landareen populazioaren bilakaeraren arabera, onetsitako Foru Dekretuak ezarri bezala?

Iruñean 1997ko azaroaren 27an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Mendillorriko banatze-espeditatearen egoerari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 28an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Mendillorriko banatze-espeditatearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendarizek, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari

atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du:

Nafarroako Gobernuak hurrengo berri ematea nahi da:

- Prozedura administratiboaren zein egoeratan dago Mendillorriko urbanizazioaren banatze-espeditatea?

- Noizko aurreikusi du Gobernuak aipatu espeditatea izapidatuko dela eta zer izapide geratzen da egiteko?

Iruñean, 1997ko urriaren 27a

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendariz

Uxueko elizako obren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Uxueko elizako obren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Uxueko elizako obren egoerari buruz Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak eginiko galderari erantzunez, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

– Berriztapena Gobernuaren kontura egitekoa izango balitz bezala egin dago galdera; hori horrela ez izanik, galdeturiko alderdi zehatzei buruzko erantzunik ezin da eman. Horren ordez, prozesuari buruzko azalpen bat eman daiteke.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren martxoaren 17ko 80/1997 Foru Aginduaren bidez, 3 milioi pezetako dirulaguntza bat eman zitzaion

Uxueko Parroki Elizari; alegia, hasieran kalkulaturiko 5 milioi pezetako kostu-aurrekontuaren %60a.

– Obren hasiera- eta amaiera-datei dagokienez, Iruñeko Artzapezpiku-barrutia da obrak kontratatze-ko eta hasteko agindua emateaz arduradun. Amaierak, Nafarroako Gobernuari dagokienez, abenduaren 31 baino lehenago izan behar du, hasi den dirulaguntza-espeditatea bukatu ahal izan dadin. Ondare Historikoaren Zerbitzuak bi aldiz ohartarazi dio Uxueko parrokoari santutegiko obrek 1997. urtean behar dutela burututa eta justifikatuta egon.

Egin beharreko obrak hauexek dira: sakristuaren etxeko estalkia ordezte, elizaren hego-fatxadari itsatsiriko etxe horren barneko aldea konpontzea eta etxearen hormak konpondu eta junteatzea. Gutxi gorabeherako kostua 5 milioi pezetakoa da, eta Gobernuak horietatik 3 milioi ordaintzeko dirulaguntza eman du.

– Une honetan ez da enpresa esleipenduna ezagutzen, baina horren kontratazioa Iruñeko Artzapezpiku-barrutiaren ardura da.

Iruñea, 1997ko irailaren 17a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Donapea institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Donapea institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Donapea Institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruz Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak eginiko galderari erantzunez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak honako hau agertzen du:

1.- Euskarazko irakaskuntza zuten Administrazio eta Finantza Goi Zikloko lehenengo mailako sei ikasleek gaztelaniazko ikasleekin bat egingo dute 1997/98 ikasturtean, bigarren maila egiteko.

2.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak egiten duena zera da: eskolatzeko-erantzuna,

lege-baldintzen arabera eta Komunitateko baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen saiatuz. Zinez, ezin daiteke esan talde bat kentzean horiek erabili gabe gelditzen direnik; horrelakorik gertatu beharrean, sistemak dituen baliabideak urteoro birbanatu egiten dira, eskola-ikasturtearen hasieran sortzen diren eskolatzeko-beharrizan berriei efikazia eta efizientzia erantzuteko. Beharritan horiek normalki ez dira aurreko ikasturteko berberak izaten, irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz dela ere. Hortaz, ez dira baliabide-aurrezpenerako neurriak, baliabide horiek arrazionalizatu eta hobeto aplikatzeko neurriak baizik.

Beraz, sistemaren berrantolaketa askaturiko baliabideei buruz galdetzeak, eta, ondorioz, erantzuteak, ez du zentzurik, ez baita baliabide-askapenik gertatzen: sistemaren funtzionamenduak berezkoa du berrantolaketa.

Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 23a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Industria-isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko kontusailaren aurtengo irailaren 1eko betetze-mailari buruz Martín Landa Marco, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

- Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: “Industria Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro Auditorietarako Dirulaguntzak”, 11250-0 lerro-zenbakia.

Irailaren 1ean oraindik ez da inongo dirulaguntzarik eman kontusail honen kargura.

Ekainaren 23ko 168/1997 Foru Dekretuak industria-jardueraren ingurugiro-eraginaren pre-

bentzio, zuzenketa eta kalitate-kontrolerako inbertsioak arautu zituen, laguntza horiek Europako Batzordeak onartu ondoren. Horien baliozkotzea joan den urteko irailaren 26an eskatu zen.

Foru Dekretu honen lehenengo xedapen iragankorrak aurtengo eskaerak aurkezteko epe-muga uztailaren 31 izango zela ezarri zuen. Hala-ber, bigarren xedapen gehigarriak zioenez, aipatu Foru Dekretua argitaratu bitartean aurkezturiko eta oraindik ebatzi gabeko eskaerak aurtengo deialdian sartuta zeudela kontsideratuko zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 38 eskaera jaso dira; horietatik, 8k dokumentazio guztia aurkeztu ez dutenez, egoki diren zehaztapenak eskatu zaizkie, eta eskaturiko baldintzak 3k ez dituzte betetzen. Gainerako 25ek aurreikusiriko inbertsio osoa 964 milioi pezetakoa da. 25 horietatik, 13 kutsadura deusezteko hainbat proiekturi dagozkio, 3k minimizazio edo birtziklapen-jarduerak dituzte, 7 ingurugiro-auditoriak egiteari edo ingurugiro-kudeaketarako sistemak jartzeari buruzkoak dira, eta 2 hezkuntza-jarduerak dira.

Dirulaguntzen behin betiko ematea aurki izango da, eta egoki den ordainketa, dirulaguntzak arautzen dituen dekretuak aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntzak justifikatuta daudenean.

Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 23a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

ERANTZUNA

María Rosario Villanueva Iturralde Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruz egin duen galderari erantzuteko, Osasun Kontseilariak, izenpetzen duenak, honakoa adierazten du:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanpostuak Nafarroako Gobernuaren enplegu eskaintza publikoan agertzen al ziren?

Bai, maiatzaren 30ko 107/94 Foru Dekretuaz onetsi zen 1994ko Enplegu Eskaintza Publikoan.

2. Zein izan ziren Osasun Kontseilariak azaldu zituen arazoak maiatzaren 19ko 632/95 Ebazpenaren etendura altxatzea erabakitzeko?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 19ko 632/1995 Ebazpenaren etendura 1996ko azaroaren 18ko Nafarroako Gobernuaren erabakiaz

altxatu zen... "Behin administrazioaren bidetik aurkeztu diren helegite arrunt guztiak ebatzi ondoren, bidezko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 19ko 632/1995 Ebazpenaren etendura altxatu eta hautapen prozedurari berriz ekitea".

3. Ebazpen hori, oposizio-lehiaketaren zein fasetan dago une honetan?

1997ko irailaren 17an laugarren ariketa egin da. Ariketa bakar bat eta aurkeztutako merezimenduen balorazioa besterik ez da falta oposizio-lehiaketa bukatzeko.

4. Zenbat izangai onartu ziren?

Laurogei: 73 txanda irekian eta 7 sustapen txandan.

Horietatik zenbat aurkeztu ziren lehenbiziko azterketara?

21

Horietatik zenbatek gainditu zuten proba hori?

12k

Zenbat aurkeztu ziren eta zenbatek gainditu zituzten 2, 3, 4 eta 5. probak?

– Bigarren proba: 12 aurkeztu dira; 10 izangaik gainditu dute.

– Hirugarren proba: 10 aurkeztu dira; 10 izangaik gainditu dute.

– Laugarren proba: 10 izangai aurkeztu dira; 9 izangaik gainditu dute.

Bosgarren proba: egin gabe dago.

5. Gainditu zutenen zerrenda izenduna eskatzen da, hasi lehenbiziko probatik eta azkenera artekoa?

Izangaiak	Emaitzak			
	1. ariketa	2. ariketa	3. ariketa	4. ariketa
Rodrigo Rincón, M ^a Isabel	7.7	12.88	9.1	8.59
Guembe Suescun, M ^a Jesús	7.9	11.62	8.15	8.70
López García, Rosa	8.85	10.29	7.4	7.60
Gil Gómez, Mónica	8.3	10.64	7.05	9.05
Apesteguía Urroz, Fco. Javier	6.3	9.17	7.3	7.44
Jiménez Carnicero, M ^a Pilar	6.15	9.24	6.7	6.80
Idotate Cervantes, M ^a Fe	5.65	7.7	5.85	6.05
Lacarra López, Mariano	5.3	8.12	5.7	6.50
García Vega, Javier	5.1	8.68	5.25	5 *
Martínez Trinidad, Miguel	5.25	7.7	5.65	5.90
Estraciano Cameno, M ^a Estrella	5.40	erretiratu da		
Barcos Urtiaga, Ana Isabel	7.10	erretiratu da		
Ederra Sanz, María	4.30			
Garde Garde, M ^a Carmen	4.60			
Hernández Galindo, Mariano	4.45			
Reinaldo Lapuerta, José Antonio	3.90			
Salcedo Miqueleiz, M ^a Asunción	4.00			
Asiain Isturiz, Angel Joaquín	erretiratu da			
Mugica Martínez, M ^a Rosario	erretiratu da			
Saldaña Lusarreta, M ^a Luisa	erretiratu da			
Castiella Catalán, Jesús	ez da aurkeztu irakurketa egiteko momentuan			

* Ez du gainditu, gai batean gehienezko puntuazioaren erdia ez duelako lortu.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko

Iruñean, 1997ko irailaren 23an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

“Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa” deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa” deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari

Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 5eko 60. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, "Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eragine Zuzenketa" deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko bete-tze-mailari buruz idatziz erantzun diezaioten egin duen galderari Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ondoko erantzuna ematen dio:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izan hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulangutzak, 11090-7 lerro-zenbakia.

Emandako egunean, aurrekontu-betetzea 1.174.104 pta.koa da, beraz % 4,89.

Betetze mailan batezbesteko horren baxua izatearen arrazoia da Iruñerriko zoru industrialak zuzentzeko proiektua ez dela behar bezala zehaztu.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokotan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko irailaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

Errioxako Autonomia Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin "Rioja" Jatorri Izendapenaren eta honen Kontseilu Arauemailearen gainean eduki beharreko lankidetzahitzarmenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Errioxako Autonomia Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin "Rioja" Jatorri Izendapenaren eta honen Kontseilu Arauemailearen gainean eduki beharreko lankidetzahitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 15eko 61. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Rioja" Jatorri Izendapenari eta honen Kontseilu Arauemaileari buruzko lankidetzahitzarmen baten proiektuaz Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak:

1.- Lankidetzahitzarmenaren proiektua ez da Nafarroako Parlamentura igorri Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak (NAEM) onetsi

beharreko eta hiru Erkidegoen artean adosturiko testu batera oraindik ez delako iritsi.

2.- Sortu den arazo nagusia Erkidegoek proposaturiko azken hitzarmen-zirriborroaren aurrean (1997ko martxoa) NAEMeko Idazkaritza Orokor Teknikoak duen kontrako jarrera da. Jarrera hori honako honetan oinarritzen da: bere ustez, "Rioja" Jatorri Izendapenaren autonomiaz gainera izae-rak ekartzen du hitzarmen bidez Erkidego Autonomoek har ezin ditzaketan -beraiek horrela nahiko luketen arren- eskumenak Estatuari egokitzea, zeren eta, Konstituzio Auzitegiaren 112/1995 Epaiaren arabera, eskumen horiek Estuatiari baitagozkio.

3.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren ustez, hitzarmenak modu eraginkor batean lagundu diezaike "Rioja" Jatorri Izendapenaren funtzionamendu hobeari eta bertan Nafarroak duen zeregina indartzeari. Horrengatik proposatu zion Nafarroako Gobernuari Erabaki bat hartzea zeinaren bitartez behean izenpetzen duen Kontseilariari baimena emango baitzitzaion NAEMekin koordinatuz eta lan eginez hitzarmenaren behin betiko proiektua egiteko beharrezkoak ziren jarduketak burutzeko, Errioxa eta Euskal Autonomi Erkidegoan egoki diren Departamentuekin batera. Aipatu Erabakia

1997ko maiatzaren 5eko bilkuran hartu zuen Nafarroako Gobernuak.

Ukituriko Departamentuetako ordezkarien arteko harremanei laster ekingo zaie berriz, proiektuari azken bultzada emateko.

Ebatzi behar den funtsezko problema zera da: Jatorri Izendapenean parte hartzen duten lau Administrazioek eduki behar duten eginkizuna finkatzea, hala nola Izendapen horretan hiru Erkidegoen eskuhartzea noraino irits daitekeen ezartzea. Horrek zera galdetzen du, baita ere: burutu beharreko eginkizunetarako beharrezko diren lan-

kidetza- eta koordinazio-mekanismoak antolatzea, eta NAEM-ari Jatorri Izendapena eraentzen duen Estatu mailako araudia alda dadin proposatzea, eginkizunak ezarritako baldintzetan burutu ahal izan daitezen.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarriko betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko irailaren 24a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dio Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruz egin duen galderari:

1. Nafarroako Aurrezki Kutxak Erabiltzailearen Arazoetarako Unitatearen ardura zuzenean hartu behar al du, edo beste enpresaren batek hartuko du ardura hori?

Nafarroako Aurrezki Kutxak parte hartzen du Larrialdietako Telefono Zerbitzua finantziazioan, baina ez du inoiz izan zuzenean Erabiltzailearen Arazoetarako Unitatearen ardura. Unitate horren funtzionamenduaren erantzukizuna Nafarroako Gizarte Ongizaterako Institutuarena da eta ez beste inorena.

2. Zer ordutegi izanen du Erabiltzailearen Arazoetarako Unitateak? Zein informazio mota jaso behar du? Nola erabiliko da informazio hori eta nola babestuko da?

Erabiltzailearen Arazoetarako Unitatearen ordutegia Nafarroako Gizarte Ongizaterako Institutuarena izanen da, eta zerbitzuaren erabiltzaileek, familiek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, Osasunetxeek, SOS Nafarroak eta bestek ematen dioten informazioa bilduko du.

Datuen babesa Nafarroako Gizarte Ongizaterako Institutuak erabiltzen duen gainerako informazioak duenaren berdina izanen da, datu pertsonalen erabilera automatizatuaren erregulaziar buruzko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoak xedatutakoari jarraituz.

3. Ezintasuna duen jende multzo batentzako zerbitzu publikoa izaki, nola konpentsatu behar ditu Nafarroako Ongizate Institututak NAK-ko Club Edad de Oroko bezeroei eskainitako Zerbitzu Bereziko Tarifaren eta Klubeko bezero ez diren gainerako erabiltzaileentzako tarifaren arteko aldea, izan ere azken horiek ez badute beherapen berezirik?

Larrialdietarako Telefono Zerbitzua, sorreratik bertatik, baliabide prebentziozkoa, publikoa, unibertsala eta ia dohainekoa da.

Nafarroako Gizarte Ongizaterako Institutuak ez du inongo finantza-entitatetako bezeroei tarifa berezia eskaintzeko asmorik.

Ezarritako tarifa bakarra 1.000 pta/hilabete/erabiltzaileko da (etxeko etxeko telelaguntzak gehienez

8.404 pta.ko tarifa ezarri zuen) eta oso mesedegarri bihurtzen da eskaerak bereizteko. Eskarmentuz dakigu zenbait baliabide dohainik izateak eskaera asko ekartzen dituela eskainitako zerbitzua jaso beharraren errealitatearekin zerikusi handirik ez dutenak.

Aurrekusita dago, dena den, erabiltzaileen gehienak tarifa hori ordaintzetik libre egotea, izan ere, pentsioak, oro har, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beheiti baitaude.

Azkenik, gogoratu behar ez dela herritarrik batere geratuko arrazoi ekonomikoak direla-eta zerbitzu hori jaso gabe. Tarifa hori ordaintzea indefentsio ekonomikoko arazo bat balitz, erabiltzaile horrek ez luke zert

an tarifa hori ordaindu, indarra duen arauei jarraituz (Nafarroako Gizarte Ongizaterako Institutuaren Gobernu Batzordearen 1997ko ekainaren 18ko Erabakia. Horren bidez erakunde horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuak emateko tarifak eta horiek aplikatzeko arauak onetsi ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko irailaren 17an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Atzerrian diren Nafarroako Zentroei dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak atzerrian diren Nafarroako Zentroei dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Atzerrian dauden Nafarroako Zentroei dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruz Pedro Uriz Lanz, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak:

1.- Zer dela-eta argitaratu da abuztuaren 11n apirilaren 14ko agindu bat, hau da, lau hilabeteko atzerapenarekin?

Espainiatik kanpo dauden Nafarroako Zentroei laguntzak ematea arautzen duen apirilaren 14ko 42/1997 Foru Agindua, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariarena, ez zen izenpetu eta berehala N.A.O.n argitaratu administrazio-errakuntza baten

ondorioz. Jakinarazi, ordea, une hartantxe jakinarazi egin zitzaien, Foru Aginduko 10. puntuak xedatzen zuen bezala, Espainiatik kanpo aurkitzen diren Nafar Zentroei; alegia, hauei: Buenos Aires-eko Nafar Zentroa (Argentinako Errepublikak), Rosario-ko Nafar Zentroa (Argentinako Errepublikak), Sud-eko Nafar Zentroa (Mar del Plata. Argentinako Errepublikak), Mendoza-ko Nafar Zentroa (Argentinako Errepublikak), Bolívar-eko Nafar Zentroa (Argentinako Errepublikak), Argentinako Errepublikako Nafar Zentroen Federazioa, Txileko Nafar Zentroa, Nafarroako Etxea Santo Domingon-n (Dominikar Errepublikak) eta Mexikoko "Solar Navarro" delakoa. Jakinarazpen hauen bidez, Foru Aginduaren edukiaren berri eskaerak egin zitzaketen entitate guztiei eman zitzaien.

Dirulaguntzak ordaintzerakoan, administrazio-zerbitzuak Foru Agindua N.A.O.n argitaratu ez izanaren errakuntzaz ohartu ziren, eta argitaratzeko izapideak egin ziren, horren arau-izaera dela-eta.

2.- Zein da zentro nafarrek dirulaguntza horiek jasotzeko duten aukera, baldin eta epea ekainaren 1ean bukatu bazen, hau da, NAO-n agindua argitara eman baino bi hilabete lehenago?

Dirulaguntzak jasotzeko aukerak handienak izan dira, aurreko puntuan azaldu bezala, eska zitzaketen entitate guztiek zuzenean eta behar adinako aurrerapenaz jaso baitzuten Foru Aginduaren jakinarazpena. Izan ere, ekainaren 1eko

epea bukatu aurretik kanpoan dauden 9 nafar entitateetatik 7k sinaturiko eskaerak jaso ziren.

Deialdia gauzatu, honako laguntza hauek banatu ziren:

– Argentinako Errepublikako Etxeen Federazioari (honek Mendoza, Buenos Aires, Rosario, Mar del Plata eta Bolívar-eko zentroak koordinatzen ditu), 4.000.000 pezeta, azaroan Mendozan egingo den Argentinako Nafar Kolektibitatearen Seigarren Topaketaren antolaketa-gastuak finantzatzeko.

– Sud-eko Nafar Zentroari (Mar del Plata), 650.000 pezeta, bere egoitza sozialean hobekuntza-obrak finantzatzeko.

– Chile eta Rosario-ko Nafar Zentroe, 336.000 pezeta, San Fermin jaietan nafar folkloreko hainbat saio artistikoren gastuak finantzatzeko.

– Rosario-ko Nafar Zentroari, 275.000 pezeta, Nafarroako eta beste hainbat espainiar erregioetako arte lirikoko saio bat finantzatzeko, Rosario, Buenos Aires eta Txileko Santiagon egingo dena.

Halaber, egoki zen epearen barnean, Buenos Aires-eko eta Bolívar-eko zentroen eskaerak jaso ziren, baina hauei ezin izan zitzaaien laguntzarik eman.

Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko urriaren 2a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---